



X + ETSI

Izena + ETSI

- **gupidetsi** (gupida + etsi)
- **jauretsi** (jaun + etsi)
- **miretsi** (mira + etsi)
- ...

Adjektiboa + ETSI

- **handietsi** (handi + etsi)
- **txarrets** (txar + etsi)
- **zuzenetsi** (zuzen + etsi)
- ...

Aditzondoa + ETSI

- **baietsi** (bai + etsi)
- **berantetsi** (berandu + etsi)
- **hobetsi** (hobe + etsi)
- ...

Zenbatzailea + ETSI

- **askietsi** (aski + etsi)
- **gutxietsi** (gutxi + etsi)
- **lehenetsi** (lehen + etsi)
- ...



askietsi

- Kaputxino gorputzez txiki baina animaz handi horren eskaintza hutsa **askietsi zuen**.

Polikarpo Irazoizkoa, *Lapurren menpean*, 1935.

gutxietsi

- Bitxia badirudi ere, jende askok aldi berean goraipatzen eta **gutxiesten ditu** matematikariak, praktikotasunik gabeko jentiotzat jota.


John Allen Paulos, *Zenbakirik gabe bizi*, EHU (ZIO bilduma), 2006. Euskaratzailea: Josu Zabaleta.

gaitzetsi

- Koloreari buruzko Goetheren teoria, *Farbenlehre* delakoa, erabat **gaitzetsi zuten** haren garaikoek.

Oliver Sacks, *Antropologo bat Marten*, ZIO bilduma, EHU, 2003.

Euskaratzailea: Xabier Olarra.



Zirkulakromatikoa.

Goetheren luma-marrazki akuarelatua, 1809

hobetsi

- Ur hutsak (izotzetan) unitate hexamero ziklikotan antolatzeke joera du; alkohol txiki puruek tetramero egitura ziklikoa **hobesten dute**.

Vollhardt, K., Schore, N., *Kimika organikoa. Egitura eta funtzioa*, EHU, 2008. Euskaratzaileak: Elhuyar Fundazioa, O. Orobengoa, S. Jauregi.

lehenetsi

- Foru-lege honek hiriguneetako zaharberritze lanak bultzatzea **lehenesten du**.

onetsi

1. Maite izan; maitatu

- **Onetsiren duk** heure Jainko Jauna heure bihotz guziaz, eta heure arima guziaz...
Joanes Leizarraga, Jesus Krist Gure Iaunaren Testamentu Berria, 1571

2. Ontzat eman, ontzat hartu.

- Fisikariek elektroia-aren uhin/partikula dualtasuna **onetsi zuten** azkenean, De Broglie-ren hipotesia-aren alde mintzo baitziren urte hartako datu esperimentalak.
Graham Farmelo, Eder behar du, EHU (ZIO bilduma), 2009. Euskaratzailea: Fernando Morillo



zenbatetsi

1. Balioetsi, zerbaiten balioa zehaztu.

- Gauzak **zenbatetsi ez direnean**, gozamendunak eskubidea du kopuru eta kalitate bereko beste horrenbeste itzultzeko,...

Kode Zibila, Deustuko Unibertsitatea, 2007. Euskaratzaileak: Eba Gaminde, Begoña Landa, Gotzon Lobera, Andres Urrutia, Esther Urrutia (IVAP/HAEeko Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala)

2. Kalkulatu.

- Gorotzen eta azido urikoaren batez besteko energia-edukia ponpa kalorimetriko bat erabiliz **zenbatetsi zuen**.

M. C. Molles, *Ekologia. Kontzeptuak eta aplikazioak*, EHU, 2008. Euskaratzaileak: Elhuyar Fundazioa, M. Arizti, M. eta A. Goenaga.



Hona era horretako beste zenbait aditz- elkarte, *Euskaltzaindiaren hiztegian* jasoak:

- ahuletsi
- alferretsi
- apaletsi
- asketsi
- baietsi
- balioetsi
- bazterretsi
- begietsi
- berantetsi
- berretsi
- ederretsi
- egokietsi
- erdietsi
- esetsi
- ezetsi
- galetsi
- goretsi
- gupidetsi
- handietsi
- hautetsi
- hiletzi
- ihardetsi
- jadetsi
- jainkoetsi
- jauretsi
- luzetsi
- miretsi
- opetsi
- sainduetsi
- salbuetsi
- sendetsi
- sinetsi
- txarretsi
- utzietsi
- zuzenetsi



Laburbilduz:

- Aditz-elkarteotako **etsi** bigarren osagai horrek 'iritzi' adiera izaten du maiz.
- **DU** erregimena dute halako aditz-elkarteek, salbuespen-txoren bat gorabehera¹.
- Loturik idaztekoak dira² osagaiok.


¹Hona salbuespentxoak:

- **Ederretsi** aditza **DU** zein **DIO** erregimenez erabiltzen da hizkeren arabera.
 - **Gazte haren zuhurtzia ederretsi zuen**
 - **Bazter-nahasle izateari ederretsi nion.**
- **Luzetsi** aditza **DIO** erregimenaz erabiltzen da, "luze iritzi" sinonimoa bezala.
 - **Luzetsi zion isiluneari.**

²Ikus Euskaltzaindiaren 25. araua, "II.3. Loturik idaztekoak diren hitz elkartuak" atalean:

c) **Odolustu** moduko aditz-elkarte arruntak: *indargaldu, uranditu, gaitzetsi* (...)

Esanahi bertsuko zenbait aditz-lokuzio dituzu honako fitxa honetan landurik:



UPV EHU

EHULKUren aholkuak
(aski, eder, gaitz, luze, on) iritzi DIO

Euskara Zerbitzua

Adjektiboa edo zenbatzailea + IRITZI DIO

- eder iritzi
- gaitz iritzi
- luze iritzi
- on iritzi
- aski iritzi

Euskaltzaindiaren Hiztegian jasorik daude forma horiek, aski¹, eder², gaitz², luze eta on¹ sarreretan, azpisarrera moduan.

1

EHULKUren aholkuak: (aski, eder, gaitz, luze, on) iritzi DIO
(2017-11-23)



X + etsi/iritzi

(Aditz-elkarteon erregimena, laburki)

- ❖ askietsi/ederretsi/gutxietsi/onetsi **DU**
- ❖ (aski, eder, gaitz, gutxi, on) iritzi **DIO**



Gehiago jakiteko:

Euskaltzaindia(1991). "A + etsi/iritzi". In *Hitz-elkarketa/3*. LEF Batzordearen lanak. Bilbo: Euskaltzaindia.

Euskara Institutua, EHU, "Aditz elkarteak", *Sareko Euskal Gramatika (SEG)*, www.ehu.eus/seg

Lafitte, Pierre (1991). "Verbes composés". In *Grammaire basque*, Donostia, Elkar, 126.-127.

Adibideen iturriak:

- EHUskaratuak [UPV/EHU](#)
- Ereduzko Prosa Gaur (EPG) [UPV/EHU](#)
- Euskal Klasikoen Corpora (EKC) [UPV/EHU](#)
- ZIO Corpora [UPV/EHU](#)
- Zuzenbide Corpora (ZCP) [UPV/EHU](#)